

ALKATE DEKRETUA

Aurrekariak

1. HAZI ETA HEZI: PROIEKTUA

Uzturpe Ikastola Kultur Elkarteak (F20070934) HAZI eta HEZI proiekturako dirulaguntza eskaera aurkeztu zuen Ibarra Udalean joan den azaroaren 28an (2025-3537 zk.).

Uzturpe Ikastola Kultur Elkartea 1970. urtean sortu zen Ibarra herriarren ekimenari esker eta harrezkero Ibartarrak eta inguruko herri txikietako herriarrek hezten dihardu gogo biziz.

70. hamarkadan Ibarra hezkuntza zentro publikoa eta Ikastola bazeuden ere, 90. hamarkada geroztik, hezkuntza zentro bakarra dago herrian: Uzturpe Ikastola. Biztanleriaren jaitzierak eta Ikastolarekiko hautua indartzeak eskola nazionala desagertzea ekarri zuen.

Herriak irakaskuntza euskaldun eta berritzaile baten aldeko apustua egin zuen, erronka guztiek dituzten arrisku guztiei muzin eginez.

Uzturpe ikastola ikasleek, familiek eta langileek osatutako hezkuntza-komunitatea da, elkarlan bidez kudeatutako antolakuntza.

Ikastola hezkuntza erakunde euskalduna izanik, euskara da bertako hizkuntza ofiziala eta euskara izango da bertako kideen arteko harremanetarako hizkuntza. Era berea, herrian euskara eta kultura sustatzen laguntzeko ardura hartzen du.

Uzturpe ikastola berak jarduten duen gizarte, kultura eta ekonomia ingurunean kokatu eta txertatutako erakundea da. Herriko beste eragileekin elkarerraginekiko ekintzen bidez, ikastolaren eta herriaren arteko harremana aberatsa da, ikastola herriaren eta herria ikastolaren parte bihurtuz; eta, honela herriarrek, herrian, berdintasunean, hazi eta hezteko aukera bermatuz.

1.1. Proiektuaren balorazio teknikoa

Ibarra, 1802. Urtean Tolosaldeko herri bat da eta 2024ko erroldaren arabera 4.074 biztanle ditu.

Historian zehar gora behera asko izan ditu Ibarra udalerriko demografiak. Auzo eta etxe eremu berrien sorrerak, migrazio mugimendu desberdinek, zein urteetan izan duen logela-hiri izaerak eragin nabarmena izan dute urteetan zehar. 1960 eta 1975. urteen artean izan zuen



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2025WDI10016

Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26

biztanleriaren handitze nabarmena. Hamabost urte horietan Gipuzkoara, eta, hain zuzen ere, eskualdera etorritako etorkinen bilgune bihurtzen da Ibarra, bere biztanleria hirukoiztu egiten da.

Orduko Ibarratik gaur egungo Ibarrra ez dago aldaketa handirik etxebizitza kopuruari dagokionez, hau da, oso etxebizitza gutxi egin dira Ibarra orduraz geroztik eta hori arazo bihurtzen da hazten doan biztanleriarentzat. Izan ere, gazteak herriatik joan egiten dira inguruko beste herriren batera, beratan etxebizitzak lortzeko aukera gehiago dituztelako.

Beraz, herriko eta inguruko haur eta gazteak herrian bertan bizitzen geratzeko hautua egin ahal izateko, hezkuntza proiektu integral baten beharra du Ibarra. Herrian bertan haur eta gazteak hazi eta hezi daitezen, guztiak biltzen dituen eta guztien bilgune izango den proiektu baten beharra dago herrian. Bestela herriko haur eta gazteak hain gertu dagoen Tolosara joateko arriskua dugu une honetan (2025ean Ibarra haurren % 19,23 eskolaratu zen Tolosan). Bide horretatik, Ibarra bizitzarik gabeko herria litzateke, etorkizunik gabea, eta hori kaltegarria litzateke guztiz bat herriarentzat eta noski bertako Udal eta eragile guztientzat ere.

Hori dela eta, bertara bizitzera datozen eta bertakoak diren haur eta gazteak bertan geratzeko, guztiak bilduko dituen, tokian tokiko, hezkuntza proiektu inklusibo baten beharra dugu. Hazi eta Hezi proiektua beharrazkoa dugu beraz, haurra bere ingurune naturalean garatu eta behar bezala bertakotzeko, hain zuzen ere, auzoan eta herrian harremanak egin ditzan, lagun-taldea osa dezan eta Ibarra lotoki huts bihurtu ez dadin. Izan ere, herrian bertan hazten eta hezten diren haurrek herrian bertan geratzeko joera dute, herriarekiko lotura sendoa garatuz.

HAZI ETA HEZI proiektua Uzturpe ikastolak Ibarra herrirako garatu duen proiektu inklusiboa da, helburu nagusi pertsona ororen HEZKUNTZA ESKUBIDE UNIBERTSALA bermatzea duelarik.

Proiektuak bi ardatz nagusi ditu: batetik, euskara eta euskal kultura, eta bestetik, hezkuntzaren unibertsaltasuna:

a) Euskara eta euskal kultura:

Proiektua integratzailea izan dadin guztiz beharrezkoa da euskara. Ibarra herri euskalduna da, herritarren %69a euskalduna delarik eta gehiago euskalduntzea helburu dugularik; izan ere, azken urteetako hizkuntza neurketek diotenez, Ibarra euskararen erabilera jaisten ari da, eta, ezinbestekoa da alor honetan eragitea. Euskara lotune da belaunaldien artean,



tradizio, ezagutza eta informazioa elkar trukatzeko elementu ezinbestekoa eta hori babesten, sendotzen eta indartzen jarraitzea izan behar dugu xede.

Horregatik, benetako murgiltze eredia gauzatuko duen hezkuntza eredia eskaini nahi du, ikasle guztiei euskaraz osotasunean bizi ahal izateko maila bermatuko diena, duten abiapuntua dutela, eta bizi diren errealitate soziolinguistikoan bizi direla.

b) Hezkuntzaren unibertsaltasuna

Herri hezitzaile bat, ez baztertzailea du helburu proiektu honek. Pertsonak (haur eta gazteak) erdigunean kokatuz, guztientzako hezkuntza eskubidea bermatu nahi dio proiektuak. Arrazoi ekonomikoak, politikoak, sozialak jatorriari buruzkoak edo sexuari buruzkoa baztertzaileak ez izatea bilatzen du proiektu honek. Elkarren zaintzan, eta ingurumenarekiko zaintzan, elkarbizitza landu eta sustatzea izango du helburu proiektuak.

Bi ardatz horiek jarduera edo lerro zehatzagotan gauzatzen dira:

1. Herritartasuna errotzeko ekintzak. Bertan sartzen dira besteak beste:

1.1. Hezkuntza orduetatik at dauden hezkuntza jarduerak: Goiz txokoa, ludoteka zerbitzu berezia, arteari eta hizkuntzari lotutako heziketa osagarria, eskola kirola.

1.2. Euskal bizikidetasuna bultzatzeko jarduerak: Euskara errefortzua.

1.3. Jarduera sozio-kulturalak: Gabonetako ekintzak, Santa Ageda, Inauteriak, bertsogintza, Uzturpeguna, kultur astea eta komunikazioa, elkartasun kilometroa eta mendi irteerak.

2. Hezkuntza eskubide unibertsala.

Uzturpe ikastola herrian dagoen hezkuntza zentro bakarra izanik, hezkuntza-eskubide unibertsala bermatu behar dio pertsona orori, arrazoi ekonomiko, politiko, sozial, sexual edo jatorrizkoengatik baztertu gabe.

Ibarrara etortzen den orori jatorrizko izaera errespetatuta, euskal herritar izateko baliabideak eskainiko dizkiete, eta aldi berean, beren ekarpenak aprobetxatuko dituzte bertakoak babesteko, beraien beharrak erdigunean jartzeko eta bakoitzaren izaera errespetatuz eta mantenduz, euskal herritar oso bilakatzeko.

Proiektua ondo egokitzen da udalak hezkuntzatzat duen helburuarekin, hau da, hezkuntza unibertsala izan behar duela guztientzat.

1.2. Proiektuaren balorazio ekonomikoa



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2025WDI10016

Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26

Proiektuaren alderdi ekonomikoa aztertzen hasita, goian aipatutako bi ardatz nagusien arteko desberdintasuna nabaria da: batetik, oso garbi daude euskara eta euskal kulturari lotutako eta herritartasuna errotzeko ekintzen aurrekontua eta bestetik, oso garbi daude, hezkuntza-eskubidea unibertsal egiteko Uzturpek egiten duen ahalegin ekonomikoa.

a) Euskara eta euskal kultura:

Bertan jasotzen dira honako ekintza hauen gastuak: Goiz txokoa, Ludoteka zerbitzua, arteari eta hizkuntzari lotutako heziketa osagarria, eskola kirola, euskara errefortzua, Gabonetako, Santa Ageda, Inauterietako ekintzak, kultur astea eta komunikazioa, elkartasun kilometroa eta mendi irteerak. Atal honek 80.849,18 euroko gastuak ditu, nagusienak izanik langile kostuari dagozkionak (28.555,58 euro), zerbitzuaren kostuari dagozkionak (28.840 euro).

b) Hezkuntza eskubide unibertsala.

Hezkuntza-eskubide unibertsalari dagokionez, iaztik estreinakoz 2 urteko gela Eusko Jaurlaritzaren kontzertaziopean dago eta neurri batean kostua finantzatuta dago, 86.970,24 euro jaso baitituzte. Hala ere, irakasle gastuak bere osotasunez ez dira estaltzen eta honek gainkostu bat dakarki, zehazki 34.086,3 eurokoa. Horretaz gain, gainkostu hauek ere aurreikusi dituzte: material didaktikoaren beka 7.385 euro, ordenagailuak erosteko laguntza 1.670 euro, Q ziurtagiria 2.370 euro eta irakaskuntza jarduerak osatzeko programa 6.612,49 euro.

Honekin lotuta, Ikastolara sartzera koan familiek funtzionamendu laguntza kuota ordaindu behar izaten dute. Baina badira hainbat ikasle ezin diotenak kuota honi aurre egin, eta hori Uzturpe Ikastolak bere egiten ditu eta asumitu. Kuota horiek ikasleen %16,39ri dagokio eta ikastolak 27.493 €-ko kostua bere gain hartu beharko duela aurreikusten da.

Bi atal hauetaz gain, badira beste atal aipagarri BATZUK proiektu honetan: jangela eta garraioa. Lehenak 240.837,63 euroko gastua du eta 198.270 euroko sarrerak, eta bigarrenak, berriz, 85.611,62 euroko gastuak eta 11.871 euroko sarrerak. Azken hau oso deigarria suertatzen da, izan ere datu ekonomikoen artean galera handiena duen atala da, 73.740,62 euro. Hala ere, beharrezkoa kontsideratzen da garraio zerbitzua, izan ere Tolosatik gertuago bizi diren ikasleak herriko eskolara erakartzeko modua da.

Hazi eta Hezi proiektuak 591.715,73 euroko gastu-aurrekontua du.

Ondorioz, Alkatetza honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21.1 artikulua, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2025WDI10016

Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26

24. artikulua eta Toki Erakunde Antolakuntza, Jardunbide eta Araubide Juridikoaren 41. artikulua arabera esleitzen zaizkion ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU

LEHENA.- Diruz laguntzea Uzturpe Ikastolako *Hazi eta Hezi* proiektua, izan ere, erabat betetzen dituelako Udalak migrazioa ekiditeko martxan dituen politikekin.

BIGARRENA.- Dirulaguntza zuzena ematea Uzturpe Ikastolari. Uzturpe ikastola herriko hezkuntza zentro bakarra da, eta ez dago herrian beste ikastetxerik udalaren interesekin bat datorren hezkuntza proiektua duenik.

HIRUGARRENA.- Aipatu proiektuari **125.000** euroko dirulaguntza ematea.

LAUGARRENA.- Aipatu dirulaguntza hitzarmen baten bidez gauzatzea.

BOSGARRENA.- Aipatu hitzarmena 2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31ra arteko iraunaldia izan dezala.

SEIGARRENA. Dirulaguntza hau nazio mailako dirulaguntzen datu basean argitaratzea.

Ibarra, sinadura digitalaren datan

ESKUd09f2dce-873e-49d6-acb6-aaf504d83a74



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA • EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2025WDI10016

Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26

1. ERANSKINA

IBARRAKO UDALAREN ETA UZTURPE IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Ibarra Udalean, 2025eko abenduaren 22an.

ELKARTURIK

Alde batetik, Igor Zapiain Lizarribar, Ibarra Udaleko Alkate-Lehendakaria, Ibarra Udaleko Idazkari Jon Telleria Zalduendok lagunduta.

Eta bestetik, Eneritz Perez Zabala andrea, 72487558E NAN zenbaki duena, Uzturpe Irakaskuntza Kooperatiba elkartearen ordezkaria. Elkartearen egoitza soziala: Ibarra Egialde kalea, 2an duena, IFK:F-20070934.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Ibarra Udalen izenean eta ordezkaritza, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikulua xedaturikoaren arabera.

Bigarrenak, Uzturpe Irakaskuntza Kooperatiba Elkartearen izenean eta ordezkaritza, zuzendari gisa, kooperatibaren kontseilu errektoreak 2014ko azaroaren 10ean eskritura bidez D. Pedro Elosegui Bergareche (118 zenbakidun kolegiatua) notarioaren aurrean emandako ahalmenaren arabera.

Bi aldeek Hitzarmen hau egiteko behar adinako legeko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA • EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2025WDI10016

Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26

AZALDU DUTE

AURREKARIAK

Ibarra, 1802. urtean sortu zen, Tolosa ondoan dagoen Tolosaldeko herri bat da; eta, 2024ko erroldaren arabera, 4.074 biztanle ditu egun.

Historian zehar gora behera asko izan ditu Ibarra udalerriko demografiak. Auzo eta etxe eremu berrien sorrerak, migrazio mugimendu desberdinek, zein urteetan izan duen logela-hiri izaerak eragin nabarmena izan dute urteetan zehar. 1960 eta 1975. urteen artean du biztanleriaren handitze nabarmena. Hamabost urte horietan Gipuzkoara eta hain zuzen ere eskualdera etorritako etorkinen bilgune bihurtzen da Ibarra, bere biztanleria hirukoiztu egiten da.

Orduko Ibarratik gaur eguneko Ibarra ez dago aldaketa handirik etxebizitza kopuruari dagokionez, hau da, oso etxebizitza gutxi egin dira Ibarra orduz geroztik eta hori arazo bihurtzen da hazten doan biztanleriarentzat. Izan ere, gazteak herritik joan egiten dira inguruko beste herriren batera, bertan etxebizitzak lortzeko aukera gehiago dituztelako.

Hori dela eta, herrian hazi eta hezten diren umeen kopurua gutxitu egin da azken urteetan.

PROIEKTUAREN ERROA

Beraz, herriko eta inguruko haur eta gazteak herrian bertan bizitzen geratzeko hautua egin ahal izateko, hezkuntza proiektu integral baten beharra du Ibarra. Herrian bertan haur eta gazteak hazi eta hezi daitezen, guztiak biltzen dituen eta guztien bilgune izango den proiektu baten beharra dago herrian. Bestela, gure haur eta gazteak hain gertu dagoen Tolosara joateko arriskua dugu une honetan (2025ean Ibarra haurren %19,23 eskolaratu zen Tolosan). Bide horretatik, Ibarra bizitarik gabeko herria litzateke, etorkizunik gabea, eta hori kaltegarria litzateke guztiz bai herriarentzat eta noski bertako Udal eta eragile guztientzat ere.



Hori dela eta, bertara bizitzera datozen eta bertakoak diren haur eta gazteak bertan geratzeko, guztiak bilduko dituen, tokian tokiko, hezkuntza proiektu inklusibo baten beharra dugu. Hazi eta Hezi proiektua beharrezkoa dugu beraz, haurra bere inguru naturalean garatu eta behar bezala bertakotzeko, hain zuzen ere, auzoan eta herrian harremanak egin ditzan, lagun-taldea osa dezan eta Ibarra "lotoki" huts bihur ez dadin. Izan ere, herrian bertan hazten eta hezten diren haurrak herrian bertan geratzeko joera dute, herriarekiko lotura sendoa garatuz.

HAZI ETA HEZI proiektua Uzturpe ikastolak Ibarra herrirako garatu duen proiektu inklusiboa da, helburu nagusi pertsona ororen **HEZKUNTZA ESKUBIDE UNIBERTSALA** bermatzea duelarik.

GAUZATZEKO METODOLOGIA

Hazi eta Hezi proiektuak helburu nagusia duen, Ibarra pertsona ororen hezkuntzarako eskubidea bermatzeko, ondorengo bi ardatzak definitzen ditugu:

A) EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA ARDATZ: Proiektu integratzailea izan dadin guztiz beharrezkoa da euskara. Ibarra herri euskalduna da, herritarren %69a euskalduna delarik eta gehiago euskalduntzea helburu dugularik, izan ere, azken urteetako hizkuntza neurketek diotenez, Ibarra euskararen erabilera jaisten ari da eta ezinbestekoa da alor honetan eragitea. Euskara lotune da belaunaldien artean, tradizio, ezagutza eta informazioa elkar trukatzeko elementu ezinbestekoa eta hori babesten, sendotzen eta indartzen jarraitzea izan behar dugu xede.

Horregatik, benetako murgiltze eredua gauzatuko duen hezkuntza eredua eskaini nahi dugu, ikasle guztiei euskaraz osotasunean bizi ahal izateko maila bermatuko diona, duten abiapuntua dutela, eta bizi diren errealitate soziolinguistikoa bizi direla.

B) UNIBERTSALA (BERDINTASUNA ARDATZ): Herri hezitzaile bat, ez baztertzaila garatzea dugu helburu. Pertsonak (haur eta gazteak) erdigunean kokatuz, euskalerritar orori hezkuntza eskubidea bermatuko diona. Bazterketarik gabea arrazoi ekonomiko, politiko edo sozialengatik nahiz jatorriari edo sexuari lotutako edozein ezaugarriengatik. Elkar zaintzan eta ingurumenarekiko zaintzan oinarrituz, elkarbizitza landu eta sustatzea izango dugu helburu, ikasle, familia eta langileen gaitasunak garatuz.



XEDE LERROAK

1. Herritartasuna errotzeko ekintzak: Badira beste ekintza batzuk helburu desberdinekin egiten direnak eta Ibararren parte hartzea bultzatzen dutenak, eta herriarekiko harremana sendotzea baliatzen dutenak:

- Hezkuntza orduetatik at dauden hezkuntza jarduerak: Ibarra haurren heziketa osatu eta familien ordutegi beharrak asetzeko ezinbestekoa da eskolaz kanpoko eskaintza zabala eta osatua eskaintzea. Modu honetan Ibarra haurrak arteari eta hizkuntzari lotutako heziketa osagarria eskaintzen diete, etorkizun batean oso baliagarri izan dakiekelarik eta etorkizuneko herritar aktiboak sortzen dituztelarik.

- Euskal bizikidetasuna bultzatzeko jarduerak: Euskara elementu loteslea da gure gizartean, Ibarra bizi nahi duen edozein herritarrentzat euskara jakitea ezinbesteko elementua da, integratzailea baita. Euskalduna den herri batean euskaldun izateak (euskara eta euskal kultura duena), herritar oso izatea dakar.

- Jarduera sozio-kulturalak: Ikastola herriko eragilea den neurrian, gazte gaztetatik hezten ditu Ibararrak. Horretarako urte sasoi bakoitzerako jarduera ezberdinak gauzatzen ditu; herrigintza bultzatuz.

2. Hezkuntza eskubide unibertsala: Herrian dagoen hezkuntza zentro bakarrak herritarren hezkuntza eskubide unibertsala bermatu behar du. Hau da, ez dadin inor baztertua gelditu bere jatorri edo baliabide ekonomikoengatik. Helburua izanik herritarrek herrian hezte, udalaren baliabide ekonomikoak haurren arteko arrakalak gaintu eta berdintasuna lortzera bideratu behar dira. Besteak beste honako hauetan arreta jarritz:

- Haurra guztiek jangela zerbitzua erabiltzeko aukera izatea
- Haurra guztiek garraio zerbitzua izatea.
- Hezkuntza orduz kanpoko jardueretan.
- Eskubide digitalak bermatzea.
- Euskara indartzeko politika

3. Jangela: Kalitatean oinarritutako jangela, ibarra elikagaiak eta inguruko nekazari eta harakinen lan egiten dute kalitatezko jangela zerbitzua eskaintzeko.



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2025WDI10016

Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26

4. Garraioa: Ikastolaren kokalekuak sor ditzakeen oztopoak ekiditeko autobus zerbitzua jartzen zaie neska-mutilei eskolara etortzeko._

ONDORIOAK

I.- Ibarraren etorkizuna herrian hazitako eta hezitako neska-mutilengandik pasatzen da. Bertan errotutako, herria ezagutu eta maitatzen duen neska-mutilik gabe, zaila izango da etorkizuneko Ibarra. Errotuta ez dagoena herritik joateko arazorik ez du, aldiz errotutakoak bertan jarraitu nahi izaten du eta bertan gelditzeko saiaketak egiten ditu. Beraz, etorkizunerako ezinbestekoa da herrian hezten laguntzen duen proiektu integratzaile bat garatzea, bestela, etorkizuna beltza izango dugu.

Uzturpe ikastola herrian dagoen ikastetxe bakarra da, eta hori dela eta, guraso, irakasle, herriko talde eta erakundeekin batera lana eginez, 2 eta 16 urte bitarteko ikasleen kalitatezko heziketa euskalduna, integrala eta etorkizunera egokitua lantzen du.

Hazi eta hezi proiektuak bilatzen duena da, 2 eta 16 urte bitartekoak herrian geratu, bertan ikasi eta herriarekiko lotura sentitzea. Horretarako euskara eta euskal kultura ardatz hartzen ditu.

Behar horri erantzunez, Uzturpe Ikastolak joan den 2024ko azaroaren 29an 2024-2025 ikasturterako **Hazi eta Hezi** izeneko proiektuarentzako dirulaguntza eskaera aurkeztu zuen udalean (2024-3409 erregistro zenbakia). Dirulaguntza eskaera ikasturte horretako jarduerak diruz laguntzeko da.

Aurkeztutako proiektua Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrek xedatutakoarekin bat dator. Memoria honek **591441** euroko aurrekontua du, dirulaguntza eskaeraren helburu diren ondorengo jarduerak gauzatu ahal izateko, eta laguntza hori hitzarmen honen bidez emango da.

II.- Entitateak egunean dituela zerga-betebehar guztiak eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

III.- Entitatea ez dagoela 38/2003 Legeak, azaroaren 7koak, Dirulaguntzei buruzkoak, bere 13. artikuluko 2. eta 3. zatietan dirulaguntzak jasotzeko adierazitako debeku-kausaren baten pean.

IV.- Bere estatutuekin bat etorritik, entitate eskatzailearen xedea bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren xede eta helbururekin.

ESKU09f2dce-873e-49d6-acb6-aaf504d83a74



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2025WDI10016

Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26

V.- Ibarra Udaren 2025eko udal aurrekontuan, 10 324.00.481.00 partida agertzen dela, 89.000 euroko zenbatekoarekin, eta 2026ko udal aurrekontuan, 10 324.00.481.00 partida agertzen dela, 36.000 euroko zenbatekoarekin entitate eskatzailearen dirulaguntza izendunaren kontzeptuaren pean.

VI.- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 25. artikuluan honela dioela: "Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.

Hain zuzen ere, Lege horren 25.2 artikulua, udalen eskumenen artean, eskumen hau jasotzen duela: **kulturaren sustapena**. Eskumen hau Udaren berezko eskumenen artean dago eta Uzturpe Irakaskuntza Kooperatiba elkarteak Ibarra herrian Euskararen normalizazio ahalbidetzea eta erabilgarritasuna sustatzea ditu bere helburu nagusien artean.

Era berean, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 17. Artikuluan, udalerrien eskumen propioak zeintzuk diren aipatzen ditu; horien artean 17.20 artikuluan **kultura sustatzeko eskumena** adierazten du eta 17.26 artikuluan aldiz **euskara sustatzeko politikak egiteko eskumena** adierazten da. Horretarako, euskal administrazio publikoek, koordinazioko eta lankidetzako, gizarte-ekimenaren sustapeneko eta baliabideen aprobetxamendu osoko, arrazional eta eraginkorreko printzipioak aplikatuz, egoki gertatzen denetan, gizarte-ekimen pribatuak garatzen dituen gaitasunak eta baliabideak aprobetxatzen ahaleginduko dira.

VII.- Hitzarmen hau ematen dela lege-arau hauen babesean: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko lege orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duena; eta Ibarra Udaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

VIII.- 2024ko abenduaren XXko alkatearen dekretuaren bidez 125.000 euroko dirulaguntza emateko hitzarmena sinatzea erabaki zuela.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatzen dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarritik.

KLAUSULAK



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2025WDI10016

Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26

Lehena.- Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Ibarra Udaren eta UZTURPE IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA elkartearen arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Ibarra udalerriaren barruan.

Bigarrena.- Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hitzarmen honen eremuan honako jardura hauek sartzen dira:

1. Herritartasuna errotzeko ekintzak: Badira beste ekintza batzuk helburu desberdinekin egiten direnak eta Ibarra parte hartzea bultzatzen dutenak, eta herriarekiko harremana sendotzea baliatzen dutenak:

- Hezkuntza orduetatik at dauden hezkuntza jarduerak: Ibarra haurren heziketa osatu eta familien ordutegi beharrak asetzeko ezinbestekoa da eskolaz kanpoko eskaintza zabala eta osatua eskaintzea. Modu honetan Ibarra haurrak arteari eta hizkuntzari lotutako heziketa osagarria eskaintzen diete, etorkizun batean oso baliagarri izan dakiekelarik eta etorkizuneko herritar aktiboak sortzen dituztelarik.

- Euskal bizikidetasuna bultzatzeko jarduerak: Euskara elementu loteslea da gure gizartean, Ibarra bizi nahi duen edozein herritarrentzat euskara jakitea ezinbesteko elementua da, integratzailea baita. Euskalduna den herri batean euskaldun izateak (euskara eta euskal kultura duena), herritar oso izatea dakar.

- Jardura sozio-kulturalak: Ikastola herriko eragilea den neurrian, gazte gaztetatik hezten ditu Ibarra. Horretarako urte sasoi bakoitzerako jardura ezberdinak gauzatzen ditu; herrigintza bultzatuz.

2. Hezkuntza eskubide unibertsala: Herrian dagoen hezkuntza zentro bakarrak herritarren hezkuntza eskubide unibertsala bermatu behar du. Hau da, ez dadin inor baztertuta gelditu bere jatorri edo baliabide ekonomikoengatik. Helburua izanik herritarrek herrian hezte, udalaren baliabide ekonomikoak haurren arteko arrakalak gainditi eta berdintasuna lortzera bideratu behar dira. Besteak beste honako hauetan arreta jarri:

- Haurra guztiek jangela zerbitzua erabiltzeko aukera izatea
- Haurra guztiek garraio zerbitzua izatea.
- Hezkuntza orduz kanpoko jardueretan.



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2025WDI10016

Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarran Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarran Hazi eta Hezi 2025-26

- Eskubide digitalak bermatzea.
- Euskara indartzeko politika

3. Jangela: Kalitatean oinarritutako jangela, ibarrako elikagaiak eta inguruko nekazari eta harakinen lan egiten dute kalitatezko jangela zerbitzua eskaintzeko.

4. Garraioa: Ikastolaren kokalekuak sor ditzakeen oztopoak ekiditeko autobus zerbitzua jartzen zaie neska-mutilei eskolara etortzeko.

2025-2026 ikasturteari dagokionean, goian jasotako lerro guztien artean malgutasuna onartuko da, bertan jasotako gastu aurreikuspenen azken zehaztasunari dagokionez, beti ere 125.000 euroko laguntza gainditu ahal ezingo delarik.

Hirugarrena.- Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.

Ibarrako Udalak hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan dirulaguntza baten bidez. 10 324.00.481.00 2025 partida, 89.000 euroko zenbatekoarekin, eta 10 324.00.481.00 2026 partida, 36.000 euroko zenbatekoarekin erabiliko dira dirulaguntza finantzatzeko. Diruz lagundutako entitateak beste Erakunde batzuen dirulaguntzak ere jaso ditzake.

Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira dirulaguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, zenbateko hori proiektu edo jardueraren azken kostuaren portzentaje bat bezala kalkulatu da eta inoiz ezingo du emandako zenbatekoa gainditu. Kasu horretan, Ibarrako udalak egindako balizko finantzazioaren soberakina kalkulatu da ekarpen horrek kostu osoaren aldean duen portzentajea erreferentzia gisa harturik.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden diren beste dirulaguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeena.

Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa-kasuak honako baldintza hauek bete beharra daukate:

a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

ESKU09f2dce-873e-49d6-acb6-aaf504d83a74



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA • EUSKAL HERRIA

Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26

Esp.zk.: 2025WDI10016

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jardueraren finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Ibarra udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

Dirulaguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Laugarrena.- Indarraldia.

Hitzarmen honek 2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio Euskara eta Hezkuntza departamentuari, Ibarra Udaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorra xedatutakoaren arabera III: kapitulua

Bosgarrena.- Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Ibarra Udaren Ordenantza Orokorren aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkaturako balioa baino handiagoa ez izatea; eta, deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2025WDI10016

Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26

Bakar-bakarrik onartuko dira dirulaguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, espresuki justifikatu beharko dira, memoria baten bidez, erabili diren irizpideak.

Seigarrena.- Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak betetzearen eta lortzearen justifikazioa egingo da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Ibarra Udaren III kapituluan dirulaguntzen Ordenantza Orokorren aurreikusita dagoenaren arabera.

Dirulaguntza justifikatuko da «justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztuta» izeneko modalitateaz, oro har, honako dokumentazio hau duela:

a) Jarduera-memoria bat, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Memoria horretan adieraziko da zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren, eta, ahal den neurrian, datu guztiak sexuen arabera banatuta aurkeztuko dira.

b) Egindako jardueren kostua justifikatzeko 1. eranskina behar den bezala betea.

Justifikazioaren alderdi ekonomikoa egiteko garaian, Udalak honako mugak jarriko ditu:

SARRERAK:

Zehaztu beharko da zein izan diren jasotako sarrerak taulan jasotako mota bakoitzaren arabera. Fase honetan aipatu beharko da baldin bada baten bat nahiz eta oraindik ez jaso jasotzeko ziurtasuna dagoena.

ESKU09f2dce-873e-49d6-acb6-aaf504d83a74



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA • EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2025WDI10016

Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26

GASTUAK:

1.- ERANSKINA: Udalak idatzi honi atxikita doan dokumentuan jasotzen den taula betetzea eskatuko du, bai sarrera bai gastuei dagokionean. Orokorrean, ez du eskatuko inongo dokumentu, ez fotokopia ez original atxikitzea. Bakar bakarrik eskatuko da, 190 ereduaren aurkezpenaren kopia bat (hori urtarilean egiten da), bai kurtsoko dirulaguntzak diren kasurako bai urteko dirulaguntzak diren kasurako.

Elkarteek aipatu taula zuzen betetzea eta sinatzea da egin beharrekoa. Era honetan aitortzaileak bere gain hartzen du erantzukizuna, dokumentu horretan jasotzen dena egia den erantzukizuna.

2.- DOKUMENTU MOTAK: Udalak honako dokumentu mota onartuko ditu:

- Fakturak
- Erosketa tiketa
- Asistentziagatiko Ordainagiriak
- Elkarreetako gastu tiketa
- Garraio gastuak (kilometrajea)
- Nominak
- Erreziboak administrazioenak
- Zeharkako gastuak

a) Faktura moduan, kontuan izango dira ondorengo edukia duten dokumentuak:

- Erosketak
- Zerbitzuen kontratazioa
- Parking eta autopista gastuak
- Seguruak
- Federazio gastuak (kirol arloan)

ESKU09f2dce-873e-49d6-acb6-aaf504d83a74



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2025WDI10016

Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26

- Sariak
- Gasolina (kilometraje gastuak jasotzen ez diren kasuetarako bakarrik)

Orokorrean, bi faktura mota daude: Ohiko faktura eta faktura sinplifikatua.

Faktura sinplifikatuak IFK a eta BEZ-aren detailea eta faktura forma edo tiket forma izan dezake. Azken kasu honetan, nahikoa izango da tiketak zenbakia izatea. Onargarria izango da faktura sinplifikatuaren kopurua 100 eurotik beherakoa bada.

Gainontzeko kasuetarako, ohiko faktura izan beharko du. Aurrekoarekin alderatuz, faktura zenbakia izan beharko du. BEZak desglosatua etorri beharko du, bai portzentaia eta kopurua jasoz, eta hala ez den kasuetan zergatiak jasota egon behar du dagokion dokumentuan.

Adibide moduan, hezkuntzarekin lotutako fakturek ez dute BEZa izaten, federazioen fakturek ere ez, eta elkarteek beraien xedeari lotutako ekintzak burutzeagatik ere ez daramate BEZ-a.

IRPFaren erretentzioa ez da burutzen enpresak, kooperatibak eta elkarteak diren kasuetan.

- b) Tiketak erosketenak:** 20 eurotik gorakoak ez dira onartuko, eta muga hau hornitzaile edo zerbitzu eskaintzaile bakoitzeko izango da. Hala ere IFK behintzat jarrita izan beharko dute.
- c) Asistentziagatiko ordainagiriak:** Dokumentu mota hau izango da erabili beharko dena, elkarteei zerbitzu ezberdinak eskaintzen dizkien pertsonen ordainsariak eman ahal izateko, profesional bezala alta emanda ez dauden kasuetarako, 2019rako gehienez ere kopuru hau udalari dagokionean 10.800 euroan ezarria geratzen da. Kasu honetan dauden pertsonen % 15 eko erretentzioak burututa egon beharko dute. Horrek esan nahi du ordainagiriaren % 85 zuzenean pertsonari emango zaiola eta % 15 Ogasunean egin beharko dela sarrera. Kasu hauetan nahiz eta udalean ez entregatu dokumentuak, % 85 jasotzen duenak sinatu egin beharko du ordainagiria dirua jarri duela esanez. Udalak eskatuko du dirulaguntzen justifikazioarekin batera Ogasunean aurkeztutako 190 eredia.
- d) Tiketa elkarten lokalen erabilerarena:** Onartuko dira bertan kontsumitutakoaren gastuak, baina ez lokalaren erabilerari lotuak, elkarte bera denean ekintzaren antolatzailea.
- e) Kilometrajea:** 2024-2025rako 0,26 eurotik gorako garraio gastuek erretentzioa izan beharko dute. Atxikitzen den eredia erabilgarri izan daiteke bai kalkulu bai jaso izanaren justifikazio moduan.

ESKU09f2dce-873e-49d6-acb6-aaf504d83a74



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2025WDI10016

Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26

- f) **Nominak:** Kostu osoa jaso beharko da, bai langileari dagokion gordina bai Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoa.
- g) **Beste administrazioetako erreziboak:** Administrazioen batek erreziboren bat kobratu badiote. (kantxa erabilera.....)
- h) **Zeharkako gastuak: Atal honek hondar-izaera izan behar du.** Gehienez ere zeharkako gastu moduan jaso ahal izango dira udalak emandako dirulaguntzaren % 10, beti ere, 300 euroko kopurua gainditzen ez duten kopuruak badira. Atal honetako edukien justifikazioa sakonago egin beharko da, zertara bideratu diren zehaztuz banan bana.

3.- IRPFa: Autonomoen fakturek IRPFa izango dute, eta ordainagiriekin ere bai. Asistentziagatik ordainagiriaren kasuan % 15a da aplikagarria kasu guztietarako; kirol arlokoek ordea, 2016tik indarrean dagoen foru arauaren arabera ez dute erretentziorik izango. Kasu guztietan dirulaguntza eskatzaileak Ogasunean egin beharko du atxikitze horren sarrera. Kirol arloko ordainagirietan, nahiz eta erretentziorik ez egin, aurkeztu beharko da ogasunean egindako deklarazioa non pertsona horiek azaltzen diren "salbuetsi" bezala, 190 ereduaren kirol kasurako, eta gainontzekoetarako 110 ereduaren bete beharko da hiru hilabeteko. Udalak kasu guztietan 190 ereduaren eskatuko du justifikazio dokumentuekin batera.

4.- BEZ-a: Irabazi asmorik gabeko erakundeekin orokorrean ez dute BEZ-a jaso behar, egiten dituzten fakturretan. Era berean fakturak badira formakuntza alorrekoak, kasu horretan ere normalean BEZik ez dute izaten. Faktura horiek idatzita izan behar dute zein artikuluren arabera salbuetsiak egon behar duten.

5.- EREDU BETEBEHARRA: Eredu honetan jasotako datuak betetzea ezinbestekoa izango da; hala ez den kasuan atzera botako da justifikazioa, eta 10 eguneko epea emango da osatzeko.

6.- ONDOREN BURUTUTAKO IKUSKAPENA Udalak urtean zehar emandako dirulaguntza guztien artean, pare bat erakunderi eskatu ahal izango dio osatu dezan dokumentazioa, fiskalizatuz aurreko urtean emandako dirulaguntzaren eduki materiala zuzena den edo ez. Hori burutzeko jarraian jasota daude bere kasuan eskatuko diren zenbait agiriren adibideak, behar dituzten gutxieneko baldintzekin.

Zazpigarrena.- Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

ESKUD09f2dce-873e-49d6-acb6-aaf504d83a74



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA • EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2025WDI10016

Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26

Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko azken eguna 2026ko irailaren 30a izango da.

Zortzigarrena.- Ordaintzeko prozedura.

Dirulaguntzaren ordainketa egingo da, oro har, dirulaguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren, beti ere jarduerarengatik eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da: lehena organo eskudunaren erabakiaren jakinarazpenarekin batera eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan, honen zenbatekoa dirulaguntzaren %71,2a izango da, gainontzeko %28,8, egindako gastua justifikatzen duen kontua onartutakoan.

Betebeharreko baldintza izango da Ibarra Udalak aurretik emandako dirulaguntzen justifikazio dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste dirulaguntza berri batean parte hartu ahal izateko.

Ordainketak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Bederatzigarrena.- Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baitira, esaterako, karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan Ibarra udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea, edo hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.

Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Ibarra Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

Hamargarrena.- Euskararen erabilpena.

Ahozko informazioa (megafonia...) eta idatzizkoa (kartelak, oharra...) euskaraz edo ele bitan egingo dira, eta azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda, Ibarra Udalean eta Udalerrian

ESKU09f2dce-873e-49d6-acb6-aaf504d83a74



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA • EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2025WDI10016

Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26

euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala. Euskaraz egingo dira ekintzaren izaerak edo hartzaileen berezitasunek hala eskatzen badute.

Hamaikagarrena.- Genero berdintasuna.

Dirulaguntzaren onuradunak ezingo dute inolako laguntzarik jaso honako kasuetan:

- Pertsona fisiko edo juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.
- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.
- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.

Hamabigarrena.- Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamahirugarrena.- Kontrol eta jarraipena.

Hitzarmen honen finantza kontrola pertsona edo entitate onuradunei egingo zaie, edo hala badagokio, erakunde kolaboratzaileei. Finantza kontrola Ibarra Udaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 48. eta 49. artikuluetan xedatutakoari jarraiki egingo da.

Hitzarmen honen onuradunak behartuta daude kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioei lankidetzara eskaintzera eta horretarako eskatzen zaizkien agiriak eta beharrezko informazioa eskuratuko diete.



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2025WDI10016

Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26

Jarraipen eta kontrol prozesu horretan hitzarmen honetako baldintzak ez direla betetzen ikusten bada, beharrezko neurriak hartuko dira diru itzulketa egin dadin, eta kasua bada, emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

Hamalagarrena.- Lan eta zerga legeria.

Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.

Hamabosgarrena.- Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamaseigarrena.- Erantzukizunpeko adierazpena.

Ibarra Udaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 6 artikuluan xedatutakoaren arabera, DLOren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izateko debekuetan erortzen ez delako egiaztapena egingo da notario baten edo funtzionario publiko baten aurreko erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

Hamazazpigarrena.- Gainerako legeria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Ibarra Udaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

Hemetzortzigarrena.- Izaera pertsonaleko datuak.

ESKU09f2dce-873e-49d6-acb6-aaf504d83a74



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA • EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2025WDI10016

Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromiso hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa, aplikatu daitekeen guztian, beteko dutela.

Hemeretzigarrena.- Baimentzea.

Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Ibarra Udalari, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik zuzenean eskura ditzan hitzarmen honen bitartez eskatutako dirulaguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.

Hogeigarrena.- Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki taulan.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmenaren hiru ale izenpetzen dituzte bi aldeek, nire aurrean eta goiburuan aipatutako toki eta egunean; Idazkaria naizen honek fede ematen dut

ALKATEA

UZTURPE IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA

Igor Zapirain Lizarribar

Eneritz Perez Zabala

1. ERANSKINA

JUSTIFIKAZIO EKONOMIKORAKO EREDUA



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2025WDI10016

Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26

A) SARREREN JUSTIFIKAZIOA

Azalpena	kopurua
SARRERAK:	
Proiektuaren berezko diru -sarrerak: _____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Erakunde pribatuen dirulaguntzak: _____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Ibarra Udala dirulaguntzak: (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza (Onartu den guztia ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Eusko Jaurlaritzaren laguntza (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Beste erakunde publiko baten laguntza _____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Beste batzuk: _____	€
Asegurua: _____	
GUZTIRA SARRERAK	€
SARRERA AURREIKUSPEN HONETATIK ZE KOPURU DAGOEN ORAINDIK JASOTZEKO	€
Ibarra udala	
Gainontzekoak	

B) GASTUEN JUSTIFIKAZIOA

Taula orokorra (Adibidea)

Azalpena	kopurua
----------	---------



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA • EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2025WDI10016

Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26

GASTUAK DENERA, MOTAREN ARABERA	
Zeharkako gastuak	
GASTUAK GUZTIRA	

Justifikatutako gastuak zehaztuta (ADIBIDEA)

AGIRI MOTA	ZK.	DATA	IGORLEA EDO JASOTZAILEA EMISOR O RECEPTOR	CIF DNI	KONTZEPTUA	BEZ-a €	IRPF %	€
TIPO DOCUMENTO								
GUZTIRA								



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2025WDI10016

Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarra Hazi eta Hezi 2025-26

ZEHARKAKO GASTUEN MEMORIA

Jaso bakoitzaren kopurua eta aurreko ataletan ezin sartu izanaren zergatia:

Aipatutako erakundearen ordezkari legala naizen aldetik, honako hau

Adierazten dut:

1. Eranskin honetan jasotako datuak egiazkoak direla, bertan jasotako ordainketak eginda daudela, deialdi honetako 13. artikulua ezarritako betebeharrak betetzen ditudala eta, nolanahi ere, prest nagoela Ibarra Udaren esku jartzeko jasotako dirulaguntza behar bezala erabili dela egiaztatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak.
2. Finantzatutako jarduerak hauek gauzatzeko garaian aseguru indarrean dagoela.

Arduradunaren sinadura eta erakundearen zigilua :

XXXXXXXXXXXX

Izena Abizenak.....XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX.....

Lekua eta data:n, 2024 korenan



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2025WDI10016
Gaia: Internet bidezko erregistroa: Ibarran Hazi eta Hezi 2025-26 - Registro por internet: Ibarran Hazi eta Hezi 2025-26

LEGE-OHARRA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako dirulaguntzak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratiboa kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkezten diren pertsonen deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Ibarra Udalak da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze eskubideak erabiltzeko Kultura Sailera jo beharko da, helbide honetara: Euskal Herria kalea 44, 20400-Ibarra.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025WDI10016-DEKRETUA/DEKRETUA (PEREZ,ZABALA,ENERITZ)